

Ermuko Tonbola solidarioa

Bi urte pasa dira Ermuko Emakume Alargunen Elkartea proiektu honetan lanean hasi zenetik. Azkenean, landutakoak uzta eman du eta datorren abenduaren 16, 17 eta 18an Tonbola Solidarioa jarriko dute, Kardinal Orbe Plazan zegoen Solozabal dendan.

Ekimenaren helburu nagusia, nahi zuten emakumeei, lagunak egiteko, solasean aritzeko eta elkarrekin egoteko aukera eskaintzea zen, aldi berean, lanak ezberdinak eginez (joste-lanak, puntua, gurutze-puntua, gantxilloa...). Bertan egiten ziren lanak tonbolarako erabiltzea erabaki zuten. Horretan has-teko, baliabideak behar ziren (oihalak, josteko makina, hariak...). Caritasek 1000 euroko mailegua eman zien hasierako inbertsioetarako eta Bizkaio Foru Aldunditik beste horrenbeste jaso dute.

Horrela, dozena bat lagun aritzen dira gaur egun Jubilatuen Egoitzako liburutegian astearte eta ostegune-

tan arratsaldeko 5etatik 7:30etara. Emakume batzuk astero elkartu eta bertan egiten dituzte lanak baina badira etxean josten dutenak ere. Horri esker, lan bilduma ederra sortu dute: 30 manteleria, haur oihalak gordetzekoak, zapiak gordetzekoak, baberoak, tapizak, pijamak, baserritar jantziak eta eskuoihalak besteak beste.

9000 txartel

Tonbolarako 9.000 txartel ateratzea aurreikusten dute. Bakoitza euro batean salduko da. Guztira, ia 500 sari egongo dira. Alde batetik Alargunen Elkarteko emakumeei eskuz egindakoak eta bestalde, hainbat herritarrek Tonbolarako eman dituzten sariak. Izan ere, datorren azaroaren 15etik aurrera, astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 5etatik 8etara Plazan zegoen Solozabal dendan jasoko dira jendeak utzi nahi dituen beste sari batzuk. Edozein gauza izanda ere, erabili gabe egon behar da.

Hiru egunetan egongo da zabalik Tonbola, abenduaren 16an ostiralean arratsaldeko 6:00etatik 10:00etara. Abenduaren 17 eta 18an, goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 4:30etatik



9:30etara. Hiru egunetan sari antzerakoak banatuko dira.

Dirua hirugarren mundura

Tonbolan ateratzen den diruaren zati bat, Caritasek utzitako mailegua bueltatzeko erabiliko da, beste zati bat datorren urteko tonbola prestatzeko materiala erosteko eta azkenik, hirugarren munduan lanean ari diren ermua-

rrek, eurak dauden tokietara eraman dezaten proiektu ezberdinetan laguntzeko. Hirugarren munduan ari diren ermuarren argazkiak jarriko dira tonbolan jendeak ikus dezan nora joango den diruaren zati bat.

San Martin Azoka egunean erakusketa txiki bat jarri zen tonbola egongo den lekuan, herritarren artean ekimena ezagutarazteko.

**Abenduaren
16, 17 eta
18an zabalik**

